

IZENA

/ FORU DEKRETUA, koa, ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretua indargabetzen duena; azken horrek arautzen ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak jendaurreko salmentarako instalazioetan eskaintzen den automoziorako gasolina eta gasolioaren hornidura zerbitzuan.

ZIOEN AZALPENA

Zerbitzu jardueretan libreki hasi eta aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legeak ezarri zuen ezen zerbitzu jarduera batean hasi eta aritzeko nahitaezko baldintza guztiek bat etorri behar dutela, besteak beste, interes orokorreko arrazoi premiatsu batek ekarritako justifikazioarekin eta harekiko proportzionaltasunarekin.

Ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretuak azaroaren 23ko 17/2009 Legearen beharkizunekin bat ez zetozen baldintza batzuk jarri zituen jardueran aritzeko, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak aski babesturik egonik kontsumitzaileen babeserako araudi orokorrarekin, sektorea ukitzen duen metrologiako arauketa berariazkoarekin eta hornidurako erregaien kalitatea bermatzeko erregelamenduzko zehaztasunekin.

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Indargabeturik gelditzen da 182/1997 Foru Dekretua; foru dekretu horrek arautzen ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak jendaurreko salmentarako instalazioetan eskaintzen den automoziorako gasolina eta gasolioaren hornidura zerbitzuan.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean,

NAFARROAKO GOBERNUKO
LEHENDAKARIA

GARAPEN EKONOMIKORAKO KONTSEILARIA

Uxue Barkos Berruezo

Manuel Ayerdi Olaizola